



Albisteak



Gorabeherak

Marimore taldea, Urnietako feministen bilgune berria

Badaramate denboratxo bat elkartzuz, eztabaidatuz, bidea eginez.

Talde moduan ari badira ere, etorkizunean elkarte izateko helburua dute. Hilero, azken ostiralean, 22:00etan elkartzen dira Gazte Informazio Puntuan. Hurbildu nahi duen edonorentzako atea irekita ditzuzte. **Nerea Zubimendi, Maialen Miranda eta Andrea Legarrak** taldearen asmoen berri azaldu diote Aiurri astekariari.



Marimore talde berriko hainbat kide.

Noiz sortu zen taldea?

Andrea Legarra: Duela pare bat urte hasi ginen elkartzen. Kon-

turutzen ginen tabernetara joaten zen mutilen kopurua neskena baino askoz handiagoa zela,

eta gainera, beraiek bakarrik joandakoan ere edozeinekin erlazioatzeko gai zirela. Neskak,


aldiz, gure kuadrillarekin joaten ginen, inoiz ez bakarka. Egoera hori gaintzeko eta elkar eza-gutzeko asmoarekin hasi ginen afari batzuk antolatzen. Harrera ona izan zuten, iazko Emakumearen Egunerako egitarautxo propio bat antolatzera animatu ginen, eta emaitzarekin oso gustura geratu ginen. Horrekin animatuta, pentsatu genuen elkar-tea sortzea, nahiz eta oraindik ez izan ofizialki elkarte bat.

Beraz, Marimore, elkarte izatea da zuen erronketako bat?

A.L.: Lehenik eta behin gure buruari formakuntza eman nahi diogu, eta ondoren elkarte edo talde izan erabakiko dugu.

[URNIETA, 4. ORRIALDEA]

Jokin Lizeaga Aian garaile



Urnietarrak ezin hobeki berrekin dio lehiari, Aiako lasterketa azkarrean garaile izan baitzen. Nola gainera, 15 kilometroko lasterketan bigarrenari minutu eta erdiko aldea ateraz. Xuban Ezeiza ere bikain aritu zen, bosgarren helmugaratuz.

[KIROLAK, 11. ORRIALDEA]

‘Martxoak 8, 8 emakume’ kalejira, larunbat honetan Basterotik abiatuta

Eguerdiko hamabietan hasiko da izaera herrikoia eta aldarrikatzailea duen kalejira.

Hauexek izango dira aurtengo omendukoak: Elkartasunaren alorrean Caritas erakunde **Bea Amondarain**, ezintasun fisikoak izan arren bizitza osoan eredu izan diren **Miren Etxeza-**




Jone Larrañaga aurkezlearen alboan aurten omenduko dituzten hainbat emakume: **Bea Amondarain, Kontxi de la Fuente, Maite Belamendia, Angela Velo eta Ainhoa Aiertza.**

rreta eta **Angela Velo, Maite Belamendia** herri langilea, **Kontxi de la Fuente** Ondarreta ikastetxe zuzendaria, Leizaran eskubaloitako emakumeak, Piano jaialdiko antolaketa taldea eta Batukada feminista taldea.

Joan zen ostiralean denek elkar eza-gutzeko aukera izan zuten, umorez eta emozioz beteriko bilkuran.

[ANDOAIN, 6-7. ORRIALDEAK]

Lehen pedalkadak herrian



[KIROLAK, 11. ORRIALDEA]

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Aiurri astekaria goitik behera berritzera goaz

3 aste barru



Liburudendetan eta Aiurrin salgai

ELKARRIZKETA

“Euskaditik kanpo heroiak ginen, hemen eragozpen bat”

Urnietako PSE-EEk bake plana uzteko erabakia hartu zuen, iaz. Plana uzteko arrazoiak jakin nahian, Aiurriko zuzendari Jon Ander Ubedak Herme Gonzalez sozialisten idazkari orokorra elkarrizketa-

tu du. Eta horri loturik, bere iraganean sakondu nahi izan du. Hamaika urtez bizkartzainez ingurutatuta bizi behar izan zuen. Mehatxatuarena, euskal gatazka latzaren milaka aurpegi horietako bat da.

Oker ez bagaude, bake eta bizikidetzajardunaldietan ez duzue parte hartu, ezta ikusle modura ere...

Herme Gonzalez. Halaxe da. Duela urte bat, iazko maiatzean edo, bake eta bizikidetzajardunaldietan ez duzue parte hartu, ezta ikusle modura ere. Lehenagotik Udal gobernu taldeari gure desadostasuna agertu genion. Ez zirela ondo bideratzen ari jakinarazi genien, arrazoi ezberdinak emanez. Ez zen bat-bateko erabakia izan, abisua ematen ari ginen eta azkenean Urnietako alderdi sozialistaren bilera batean gaia mahai gainean jarri eta bizikidetzajardunaldietan ez duzue parte hartu, ezta ikusle modura ere.

Pena handiarekin, egia esan behar badizut. Izan ere, plana PSE-EEri esker abiatu zen. Hasiera haietan Bilduk ez zuen sartu nahi izan, eta geuk bilera batean erabakia hobeto pentsatzea eskatu genien. Ez zuela akordio handi bat izan behar, aurrera egiteko gutxieneko adostasun bat baizik. Hirurak ordezkaturatuta egotea beharrezkoa da, baita urnietarrei begira ere. Zeren eta alderdi batek huts egiten badu..., hori ez da ona. Bilduk baiezkoa eman zuen eta erabaki hori poz handiz hartu genuen. Lehen jardunaldi haiek bikainak izan ziren, parte hartze handiarekin. Pixkanaka jardunaldien martxa apaltzen joan zen, eta iazko maiatzean bake plana uzteko erabakia hartu genuen. Maribel Vaque-rori jakinarazi genion, eta geroztik ez du gurekiko urrats bakar bat eman.

2017ko martxoan gauden honetan, jokabide berari eusten al diozue?

H.G. Bai. Baketik erakundearekin harreman zuzena dugu, eta aurtengo egitarauaren berri lehen eskutik jaso dugu. Oso eskertuta gaude. Nahiko genuke Udal gobernu taldeak ere gurekiko jokabide bera izango balu.

Bake plana uzteko erabakiaren berri eman zenutenean, lekukotzen oreka falta kritikatu zenuten...



Herme Gonzalez Urnietako PSE-EEko idazkari orokorra.

H.G. Lekukotzetan oreka falta dago hiritik bi alde batekoak direnean, eta hiru-garrena beste aldekoa. Desorekak sortzen dira. Zeren eta gatazka honetan bi alde daude. Eta gero ekitaldien arabera, batzuetara jende asko hurbiltzen da eta besteetara ez hainbeste. Horri irtenbidea eman behar zaio, bizikidetzan sakontze-

ko besteari entzun behar zaiolako. Bestela ez dago plan on bat egiterik.

Bitxia da, zeren eta aurtengo jardunaldietan zuek oso gertuko duzuen Iosu Elespe parte hartu du. Antzezlanera, inauteriak izan arren, jende asko hurbildu zen eta galde-erreguetan oso ideologia ezber-

“Bake planean hirurak ordezkaturatuta egotea beharrezkoa da, baita urnietarrei begira ere. Zeren eta alderdi batek huts egiten badu..., hori ez da ona”

dinetako herrikideek hartu zuten parte. Hitzordu horretako lekukotzak desorekatuak izan zirenik ezingo zenukete esan...

H.G. Nik, ordea, honako galdera egiten diot nire buruari. Zergatik ekarri zuten Iosu Elespe? Presio ezberdinak nabaritzen ari gara. Ez zuzenean, baizik eta zeharka Baketik erakundearen edota gure alderdiaren eskutik. Ez du zentzurik horrela presionatzeak. Guregana jo dezatela zuzenean.

Guk Josu Elesperi gure egoeraren berri eman genion bere garaian, eta berak oso ondo ulertu zuen.

Aurtengo egitarauan torturak eta ETaren biktima zuzenak kontuan hartu dira. Ez al zaizue hori orekatua iruditzen?

H.G. Ez gara detaile zehatzez ari. Pixkanaka-pixkanaka okertuz joan den egoera izan da. Adibidez, kazetarien mahai-inguruan ikusle batzuk altxa egin ziren eta guk bertan egotea erabaki genuen. Berriak Martxelo Otamendik euskara hutsean hitz egin zuen, eta eskubide osoa du. Baina guk berak dioena ulertzeko eskubide osoa dugu.

Hizkuntzaren erabilera zuen kexatuko bat izan da, plana uzterakoan. Euskara hutseko adierazpenek ekitaldi horietan elkar ulertzea oztopatzen dutela argudiatu duzue...

H.G. Bai, Batzar Nagusietako kide naiz orain eta, han ere, hizkuntzaren erabilera oztopo bezala agertu da hainbatentzat. Herritarren parte hartzea dagoen edozein ekimenetan partaideek elkar ulertzea funtsezkoa da, eta kasu batzuetan euskararen erabilera hutsarekin hori ezinezkoa da.

ELKARRIZKETA

Berriki igaro diren Urnietako bake eta bizikidetzaren jardunaldietako bi ekitaldiak gaztelania hutsean izan dira, ordea...

H.G. Eta? Zertara jokatzeko ari gara? Kontua ez da gaztelaniaz izan behar dutela. Guk ez diogu gaztelania hutsean izan behar duenik. Baina detaileak daude. Martxelo Otamendik soilik euskaraz hitz egingo zuela adierazi zuen, eta besteei hor konpon edo antzeko zerbait adierazi zuela ulertu nion. Eta horiek ez dira moduak.

Bestalde, ekitaldi horien ondoren lasaldiak izaten dira eta euskara hutsean aritzen direnekin, tartean Udal ordezkariak, komunikaziorako arazoak sortzen dira.

Hizkuntzaren erabilera, orduan, hobetu beharrekoen zerrendan ikusten duzue...

H.G. Ezinbestekoa da hori hobetzea. Badago jendea konturatu gabe euskaraz hitz egitea ateratzen zaiona, baina horrelakoetan enpatizatzea oso zaila egiten zaigu.

Hizkuntzaren arazoa gainditzeko bat-bateko itzulpen sistema ezartzea aukera bat izan al daiteke?

H.G. Horixe baietz. Eta behin eta berriro eskatzen ari garen gauza bat da.

Zuen hirugarren kritika udalgintza barruko martxari buruzkoa da, zeinean diozuen Udala ez dela gaur egun elkarbizitzaren erdugarria. Kasu horretan elkarbizitza hitza ez al dago gaizto samar erabilia?

H.G. Inondik inora. Udalgintzan elkarbizitzeko gai ez bazara, bake eta bizikidetzaren plangintzan ezer gutxi eskain dezakezu.

Ez al da gogor samarra adiera hori udalgintzari buruz hitz egiteko garaian?

H.G. Bai. Baina hori da gaur egun bizi duguna. Udaletxean eskaintzen den tratu ez da zuzena.

Adibide zehatzen bat jar al zenezake?

H.G. Agintaldiaren hasieran, Euskadiko udalerrietan eta Foru Aldundietan EAJ-PNV eta PSE-EE alderdien artean bata bestea babesteko akordioa lortu zen. Urnietan jeltzaleek gehiengo osoa dute, eta hori agerikoa da. Guk, nolana ere, elkarlanean aritzeko eta gu kontuan hartzeko eskaera egin genion. Bada, orain jeltzaleak apalago dabilta, baina agintaldiaren hasiera ikaragarria izan zen. Ez gintuzten kontuan hartzen, informaziorik ere ez ziguten helarazten, eta baita gure bozeramailea mehatxatu ere.

Mehatxatu?

H.G. Bai, alkate jaunak. Gobernu taldean sartzen ez bazen ez zuela liberaziorik izango adierazi zion Consuelo Frutosi. Eta hori mehatxu bat da.

Gobernu taldeak, agintaldiaren hasieran, liberazio politikoa zehazteko garaian EH Bilduri eta PSE-EEri jarritako baldintza izan zen hura...

H.G. Hori ez dakit horrela den. Hori EH Bilduk erantzun beharko du. Gurekin nik adierazi dizudan bezala jokatu



Hamaika urtez bi bizkartzain izan zituen alboan, ETAK mehatxatuta bizi zelako.

“Bi atentatu saiakera sufritu nituen. Bat Urnietan eta bestea lantokian. Baina ez dut horri buruz hitz egin nahi”

zuten. Eta hori nire ustean mehatxatzea da.

Aldera dezagun Urnieta Zumarragarekin. Han sozialistak gaude agintean, eta jeltzaleei ardura postuak eskaini zaizkie.

Bake eta bizikidetzaren jardunaldiei dagokionez, euskal gatazkak ertz ugari ditu. Mehatxatuarena da zure kasua. Zuk zeuk bizkartzainak izan dituzu urte askoan. Nola ohitzen da pertsona bat egoera horretara?

H.G. Ohitu, ez zara inoiz ohitzen. Zer egin dut nik horrela bizitzeko? Hamaika urte horietan guztietan neure buruari gehien egiten nion galdera huraxe zen. Nire bizitzan, horrela sentitzen nuelako, alderdi sozialista aukeratu nuen eta nire antzeko ideiak zituztenak ordezkatzeko hauteskundeetara aurkeztu nintzen. Halakoren batean ordezkari politikoak hiltzen hasi ziren, egoera kafkianoa erabat. Froilan Elespe erail zutenean alderdiak bizkartzainak jartzea erabaki zuen.

Egun batetik bestera zure bizimodua erabat aldatzen da. Askatasun falta erabatekoa da, eta zeure bizitza etengabe programatzen hasi behar duzu. Ezin zaitezke kalera irten, ezta zaborra botatzera ere.

Eta horrela hamaika urte. Ezin duzu ibilgailua erabili, ezin duzu ordutegirik errepikatu..., hori bere larruan bizi izan ez duenarentzat ia ezinezkoa da ulertzea. Preso egotearen modukoa dela esan ohi dut.

Pentsatzekoa da egoera hark psikologikoki eragin handia izango zuela zuegan...

H.G. Nire kasuan, animikoki ez dut kalte handirik pairatzen. Are gehiago, PSOEek adimen emozionalari buruzko

jardunaldi oso onak antolatu zituen. Enpresa batek kudeatu zuen eta gure egoera berezia aztertu. Ezusteko atsegina hartu zuten, kasu batzuetan. Egia da, horrelako muturreko egoera baten aurrean pertsona bakoitza mundu bat dela. Eta oso gaizki egon diren pertsonak ezagutzen ditut.

Zuk, ordea, mehatxatuta zeudela sentituko zenuen, ezta?

H.G. Noski. Are gehiago, nire aurkako atentatu saiakeraren bat izan zen.

Eta hala eta guztiz ere indartsu sentitzen al zara?

H.G. Pentsatzen hasten zara eta zeure buruari galdetzen diozu: Zer egingo dugu? Denak hemendik joan? Iraun egin behar zela erabaki nuen, eta egoerari askatasunaren alde borroka eginez erantzun. Ez nuen beste aukerarik ikusten. Horrela sentitzen nuen nik.

Uste dut jokabide hori ez duela ia inork behar bezala baloratu. Euskaditik kanpo heroiak ginen, baina egia da hemen ez gaituztela baloratu. Eragozpen bat izan gara, hainbatentzat.

Zure aurkako atentatu saiakera bat izan zela adierazi duzu...

H.G. Zehazki bi saiakera izan ziren. Bat hemen Urnietan eta bestea lantokian. Baina ez dut horri buruz hitz egin nahi.

Nahiago al duzu azalpenik ez eman?

H.G. Ez dut xehetasunetan sartu nahi.

Zure inguruak nola bizi zuen egoera hori?

H.G. Gaizki. Geroz eta jende gutxiago hurbiltzen hasi zitzaidan, beste batzuk hitz egiteari utzi ninduten edota beste espaloira igarotzen ziren. Pertsona kopuru txikira mugatu zen bizimodua. Itsusikeriak ere iritsi zaizkigu, aurpegi-erantzuzko ez dizu inork ezer esango baina atzetik esandako itsusikeriak pairatu izan ditugu. “Zerbait egingo zuen!” eta antzekoak iritsi dira nire belarrietara. Bizi izan dudana ez diot inori desio.

Zuen ideologiakoa ez den pertsonen elkaritasuna jaso al zenuen?

H.G. Ez. Bizitza tokatu zitzaidan egoera horretan okerrera beste aldera begiratu zutenena izan da. Batzuentzat, gainera, eragozpen bat ginen. Nire ibilgailua parean tokatuz gero, euren tokiz aldatzen zuten bizilagunak nituen, euren ibilgailuari zer gerta litzaiokeenaren beldur.

Beste aldera begiratu dute herrikide horiek egin didate min gehien.

Alderdi modura belaunaldi oso bat galdu dugun sentazioa daukat. Zeren eta bizkartzainekin igaro genuen harkada luze horretan, gazteak Herriko etxera hurbiltzea edota alderdian afiliatzea pentsaezina zen. Beldur handia zegoen orduan.

Datozen edizioetarako, mehatxatuarena edota bizkartzainak eduki zituzten Udal ordezkarien gaia bake eta bizikidetzaren jardunaldietarako gaia izan daiteke. Zuek proposa zenezakete...

H.G. Guk bake plana utzi dugu. Mari-bel Vaquerok gure “pataleta” bat dela dio, eta ez da hori. Inondik inora. Hausnarketa baten ondorio izan da. Guk, adibidez, ez dugu bake planaren beharrik EH Bildurekin harremana izateko. Aurreko agintaldian, zinegotzi izan nintzenean, EH Bildurekin harremana bikaina izan zen. Iñaki Mendizabal zinegotzi zeneko agintaldian ere harreman bikaina izan genuen. Elkarbizitza hori da.

Kanpotik, hala ere, Urnietako egoera arraroa da. Gauza bat da udalgintzan alderdien artean tirabirak izatea, eta beste gauza bat da bake plana aurrera eramateko ezintasun hori islatzea.

H.M. Askok, gainera, gaiztoaren papera guri egotziko digu. Utzi egin dugula, “pataleta” bat izan zela, elektoralista izan zela... Erantzukizun guztia ez da gurea. Uste dut egoera honetan erantzukizuna ardura gehien dutenena dela.

Iazko maiatzean hartutako erabakia berresten dugu, zeren eta ordutik hona ez da gurekiko saiakerarik egin.

Urnietan, bizikidetzaren eskutik, zer egin beharko litzateke etorkizuna lantzeko?

H.M. Gertatu dena ez da ahaztu behar, berriro gerta ez dadin. Hori lehenik eta behin. Etorkizuna eraikitzeak gako elkarbizitza da. Hori baino hobeagorik! Pluraltasuna onartuz eta bakoitzaren iritzia errespetatuz, elkarbizitzan sakondu behar dugu. Demokrazia hori da.

Urnietako PSE-EEko idazkari orokorra zara, eta batzarkidea Gipuzkoako Batzar Nagusietan. Zein da zure zeregina erakunde hartan?

H.M. Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Batzordeko lehendakaria naiz. Paradoxikoa da, EAJ-PNVrekin agintzen ari gara han. Zeregin gehiago betetzen ditut. Udalgintzarekin alderatuta, oso bestelako erritmo baten lan egiten da han.

Gipuzkoako udaletxea dela esan ohi dut.

Udal adierazpen bateratua



Frutos, Pagola eta Izagirre egitarauaren aurkezpen ekitaldian.

Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna harira, Udalak egunotan ekitaldi sorta antolatu du. Bestek beste, bilkura deitu zuten astearte arratsaldean, San Juan plazan. Datozen egunetako hitzorduak Agenda atalean irakur daitezke.

Maila politikoan, aurten adostu duten Udal adierazpenean emakumeen parte-hartze sozial eta politikoa indartzeko aipamen zehatza egiten da. Berdintasunerako Europako Gutunetik eratorritako konpromisoak beregain dituzte.

Korrika Kulturala Urnietan

Korrika batzordeak, Udalarekin lankidetzan, Xilipurdi taldearen "Salam" kale antzerkia eskainiko du datorren astean, Urnietako Zubitxo plazan.

19:00 Zubitxo plaza
Martxoak 17, ostirala



Kimu berriak plazan

San Juan plazan eta Erreoretxean zuhaitz berriak landatu dituzte gaur, Zuhaitzaren egunean. Udal teknikariek batera, herriko bi ikastetxeetako 5. mailako ikasleek hartu dute parte ekimenean. Zuhaitz berrie-

tan ingurugiroaren aldeko mezuak eskegita utzi dituzte. Plaza inguruan zeuden 26 zuhaitz kendu dituzte, egoera txarrean zeudelako. Horien ordez 'Parrotia persica' moetak zuhaitzak landatu dituzte.

Bidaia bakardadean

Ameslaria, idazlea, blogaria, bidaiaria, hizlaria eta argazkilaria da Patricia Jimenez. Bere bidaien ezaugarria bakardadean eta aurrekontu gutxirekin bidaiatzea da.

Bakarrik bidaiatzen duen

emakume baten berezko beldurrei eta horiek apurtzeko beharrari buruzko diaporama eskainiko du datorren astean, Diaporama zikloan.

19:00.

Martxoak 15, asteazkena



Eskelak,
heriotz oharrak,
urteurrenak
Aiurri astekarian
943 300 732
diseinua@aiurri.eus



Urnietako feminista taldearen ospakizuna, larunbat honetan

Marimore, sortu berria

Iazko Sanmieletan presente egon zineten...

Maialen Miranda: Bai, txosnagunean, gure txoko propio bat izan genuen herritarrek ikus zezaten emakume talde bat sortzen ari dela herrian.

Udalarekin ba al duzue harremanik?

A.L.: Sanmielen ondoren, Eli de Arriba Udal teknikariarekin hasi ginen harremanetan, berak esan zigun lan polita egin genezakeela herriarentzat, eta horrela hasi ginen elkartzeko Gazte Informazio Puntuaren. Datorren larunbaterako, Emakumeen Eguna ospatzeko hainbat ekintza prestatu ditugu.

Nondik dator izena?

A.L.: Miela hartu genuen erreferentzia moduan, Miela errebelde bezala, eta morea emakumeen kolore bezala erabiltzen denez, Marimore jarri genion.

Baduzue harremanik inguruko herrietako talde feministekin?

A.L.: Talde feministetako partaide diren beste herrietako pertsonekin bai, eta horrek ere laguntzen digu gure bidea egiten.

Elkarte bezala mutilek ere ba al dute lekuri zuen taldean?

Nerea Zubimendi: Uste dut emakumeok gurea eta guretzat izango den gune bat eduki behar dugula, gu baikara emakume izatearen ondorioak sufritzen ditugunak. Guk lehenik formatu egin nahi dugu, eta ondoren, beti ere, argi utziz zer nahi dugun, aberasgarria ikusiko nuke gizonaen parte hartzea, bai ekintzatan, bai bileratan, baina oinarriak ondo finkatu ondoren.

Gazteak zarete, nola ikusten dituzue neska-mutilak, erraza al da zuena bezalako mugimentu batera erakartzea?

M.M.: Talde erabat irekia izanagatik, batzuek beti haserre gaudenen talde itxi bat bezala ikusten gaituzte. Batez ere, gure adinetik gorakoak direnek, gazteagoen artean harrera hobe dela esango nuke.

Azken urteetan, berdintasunerako bidean aurrerapen ugari eman dira emakumeen aldetik, eta gizonak zer?

N.Z.: Pertsonen arabera izan da. Askok aldatzen da mugitzen zaren giroaren arabera.



Marimore taldekoak Gazte Informazio Puntuaren kanpoaldean.

Familiak eragin handia dauka. Ikastetxeetan, kuadrilletan, zenbat iritzi ezberdin dauden! Normalean, pertsona bakoitzaren interesen arabera.

M.M.: Harrigarria badirudi ere, hainbatetan gertatzen da, gure gurasoen belaunaldikoak irekiagoak eta toleranteagoak izatea gure adin bereko batzuk baino.

Etorkizunera begira jarrita, zeintzuk dira feminismoaren erronka nagusiak? Zein aurreikuspen dituzue?

M.M.: Espazio publikoetan, lan munduan eta abarretan ikusgarritasuna eta berdintasunean oinarritutako oreka lortzea. Familia esparruetan pixkanaka aurrerapenak berdintasunaren bidean ematen joatea.

Genero-indarkeria aipatu beharrezko gaia dugu. Badirudi, legeek, planek, sentsibilizazio kanpainak eta abarrek ez dutela esperotako emaitzik eskaini. Zerk huts egiten du?

M.M.: Txiki-txikitatik hasi beharko lukeen hezkuntza da oinarria etorkizun batean gauzak argi edukitzeko. Nahiz eta aurrerapenak ikus daitezkeen eskolatan, oraindik bide luzea dago egiteko. Berdintasunean oinarritutako hezkuntza da etorkizunean arazoak saihesteko modurik onena.

Nola definituko zenukete zuek alor honetan jasotako hezkuntza?

A.L.: Ikasle ginenean, Emakundek antolatuta, astean behin edo lantzen ginen proiektu batean murgilduta egon ginen ikastolan. Gero, DBHn sexualitate ikastaro bat ere eskaini ziguten. Badirudi ikastetxeek kanpotik datozkien proiektu horietan sartzearekin kunplitu dutela.

Berdintasunaren alorrak egunerokotasuna eskatzen du, ez da lau egunetan ikasteko gai bat, prozesu oso bat baizik.

Zein egitarau prestatu duzue larunbat honetarako?

N.Z.: Zunba klase batekin hasiko gara goizeko hamaikatan. Ondoren, triki-potea eta bazkaria Egapen. Arratsaldean, dokumental interesgarri bat proiektatuko dugu Lekaion. Hainbat herritar elkarrizketatu ditugu, hiru galderen erantzuna eskatuz, horrekin osatu dugu dokumentala. Bukatzeko, tertulia eta festa girorik ez da faltako.

Zer aurreratu dezakezue dokumentalean ikusiko denaz?

M.M.: Bertan iritzi ezberdin asko daudela, jende bezentek parte hartu duela, gai aktualak direla eta gustatuko litzazukeela herritarrek ikustera gerturatzeari.

Bukatzeko, esaezue herritarrei zergatik parte hartu behar duten Marimore taldean.

A.L.: Onuragarria izango den zerbait delako, barne-ikasketa bat, eta hori beti dator ondo. Borroka feministaren alde egiteko. Urnietan ere kontzientzia hori piztea beharrezkoa delako. Ahaztu gabe ondo pasatzea eta jende berria ezagutzeari.

M.M.: Beti ikusten ditugu talde feminista potenteak hiriburuetan eta horrela, badirudi, herri txikitien festekin edo egun jakin batzuekin lotzen direla, eta hori baino askoz gehiago da, eta adinez zaharrago izanagatik gure mugimenduaren ideiak, egitasmoak eta aldarrikapenak berdin-berdin babesteko modukoak dira.

Martxoak 11, Marimore festa

ADIERAZPEN BATERATUA MARTXOAREN ZORTZIAN

Udaletxean ordezkaritza duten alderdi politiko guztiek adierazpen bateratua adostu eta jendaurrean aurkeztu zuten martxoaren 8an, udaletxeko pleno aretoan. Europa mailan toki administrazioetan emakumeen parte hartzea sustatzeko gutunarekin bat egiten zutela iragarri zuen Ana Carrere alkateak, korporazio osoa ordezkatuz irakurri zuen adierazpenean.



Andoaingo Udalak "Andoain APP" aplikazioa aurkeztu du

Andoain APP aplikazioa

Informazio eta komunikazio teknologia berrien bitartez, Andoaingo Udalak herritarrengana gerturatzeko saiakera berria egin du **Andoain APP** esku-ko telefonorako aplikazioa aurkeztuz. Aplikazio horren bitartez norabide bikoitzean eragin nahi da, herritarrak eta Udala elkar lotuz. Alde batetik Udalak informazioa zabalduko du aplikazio horren bitartez, esaterako, eguraldiari loturiko alerta ezberdinak indarrean jartzen direnean. Beste alde batetik, herritarrek gorabeheren berri emateko aukera izango dute. Telefonoaren bitartez iradokizunak, kexak edota ohar-tarazpenak egin ahal izango dituzte, testua, kokapen geografikoa eta argazkiak erantsiz.


'Alertak' eta 'Gorabeherak' aplikazioak izango dituen bi atal berritzaileenak izango dira. Badu beste atal bat, 'Albisteak', eta hori webgunera lotura egiten duen albisteen atala da. Klik eginez gero, erabiltzailea andoain.eus webgunean argitaratuta dauden berrietara iritsiko da.

Laugarren atal bat badu ere joan zen asteartean Jon Zulueta eta Iñigo Muñozek udaletxean aurkeztu zuten Andoain APP aplikazioak, 'Herri partaidetza' izenekoa. Aurrerago jarriko dute indarrean, eta atal horren bitartez herritarrei hainbat galdera egiteko aukera baliatuko dute. Aurkezpenean adierazi zuten, sariketa baten inguruan erabakitze alorren bitartez galdera egitea aukeretako bat izango da.

Aplikazioa euskaraz edota gaztelaniaz erabiltzeko prest dago, eta Android edota IOS sisteman erabiltzeko egokituta dago. Karga arineko aplikazioa da, 8 mega ingurukoa.



Jon Zulueta gobernu taldeko bozeramailea Iñigo Muñoz Udal teknikariarekin batera, behean ikus daitekeen 'Andoain APP' aplikazioaren aurkezpen ekitaldian.



Dantza tailerra

Datorren martxoaren 14an, asteartearrekin, Arrate pilotalekuaren azpialdean dantza tailerra antolatu du Guraso-lagun ekimenak, guraso eta

haurrei zuzenduta. Arratsaldeko 18:00etatik aurrera hasiko da ikastarotxo, Urki dantza taldeko kideen eskutik.

Fiare banka etikoa

Sare sozialen bidez "Fiare banka etikoa: Boterea duzu" irudia zabaldu dute: "Zuk ere baduzula boterea uste

baduzu, zatoz guregana ostegun honetan 18:00etatik aurrera gure lokalera".

Gabriel Aresti 15, Atzealde.

Andaluziaren eguna Trianaren egoitzan



Brindisa eginez ospatzen dute Andaluziaren eguna.

Andaluziaren eguna ospatu zuen Triana elkarteak, joan den larunbatean. Elkarteak bazkideekin eta Andoaingo Udala ordezkariekin batera gogoratu zuen eguna.

Andaluziaren ereserkia abestuz eman zioten hasiera ospakizunari. Ondoren, Andaluziako herriaren baloreak eta kultura zabaltzea helburu duen Triana elkartearen presidentea den **Marian Valorek** hartu zuen hitza, eta Blas Infante idazle eta musikaria ekarri zuen gogora: "egun berezi honetan, derri-gorrezkoa zaigu aipatzea Infante, Andaluziako aberriaren aita dugulako". Ondoren, Andaluzia eta Euskal Herria uztartu zituen: "Jatorria Andaluzian daukagun euskaldunok, bi egun daukagu ospatzeko: Aberri eguna eta Andaluziako eguna". Ildo beretik mintzatu zen

Ana Carrere alkatea, eskerrak emanez Triana elkartearen kideei Andaluziako kultura sustatzeari batera Andoaingo kultura eta elkarbizitza aberasteagatik.

Egun osoko jaia izan zen larunbatekoa, eta DJ batek jarritako musikarekin eta dantzaldiarekin amaitu zen.

Triana elkarteak 40 bazkidek osatzen dute, eta Nafarroa Plazan dauka egoitza. Andaluziako folkloreaki loturiko abesbatza eta dantza taldeak sustatu izan ditu jaio zenetik, eta urtean zehar hiru ekitaldi antolatzen ditu bereziki: Andaluziaren eguna, Apirileko feria eta Herrien arteko eguna Hogar Extremeño elkartearekin batera. Elkartearen presidenteari esanetan "elkartera irekia da, Andaluzia eta bere kultura gertu sentitzen duen edonor izan daiteke bazkide".



Andaluziako kultura sustatzea da Trianako kideen helburua.

MARTXOAREN ZORTZIA ANDOAINEN

“Martxoak 8, 8 emakume” kalejiraren atarian

Martxoaren 8aren inguruko programazioa abiatu da. Astearen hasieran hitzaldi eta zine emanaldi banaren bitartez prostituzioa hizpide izan dute Andoainen. Larunbat honetan hitzordurik herrikoie-

na iritsiko da, “Martxoak 8, 8 emakume” kalejira izenekoa. Joan zen ostiralean aurtengo omenduak bildu zituzten Bastero kulturgunean, umorez eta emozioz beteriko ekitaldian.

Ana Carrere alkateak eta **Esti Mujika** Berdintasun zinegotziak aurtengo programazioaren aurkezpena egin zuten. Basteroko erakusketa aretoan, kartel lehiaketaren sari-banaketa egin zuten lehenik eta behin. Bide batez, feminismoa ardatz duen erakusketa zabaldu zuten. Eta, ondoren, “Martxoak 8, 8 emakume” kalejiran omenduko dituzten izenen berri eman zuten. Jone Larrañaga kazetariak bideratuta, omenduek bere burua aurkeztearekin batera, kalejiraren inguruko xehetasunak eskaini zituzten.

Banaka edo taldeka izan duten ibilbideagatik, hauexek dira aurtengo omenduak: **Bea Amondarain**, **Miren Etxezarreta**, **Maite Belamendia**, **Angela Velo**, **Kontxi de la Fuente**, Leizaran eskubaloit taldeko **Eva**, **Toñy eta Haize**, Deidar elkarteko **Ainhoa**, **Myriam** eta **Txitxu** eta **Batukada** feminista taldea.

Bereziki hunkigarria izan zen Miren Etxezarretaren lekukotza. Ezintasun fisikoak eraginda gurpildun aulkia behar-beharrezkoa badu ere, bere baikortasunak eta alaitasunak ekitaldira hurbildutako ikusleak hunkitzea lortu zuen.



Argazkian larunbat honetan Basteroko plazatik hasi eta herrigunean barrena Goikoplazarainoko kalejiran lekukoa eramango duten emakumeak.

KARTEL LEHIAKETAREN SARI BANAKETA EKITALDIA ETA ERAKUSKETAREN IREKIERA



Juanan Lazkano diseinatzailea

Andoaindarra da aurtun Andoaingo emakumearen eguna iragartzen duen kartelaren egilea: “Argazkilaritza estenopeika erabili dut argazkia lortzeko; oso teknika zaharra da eta horretarako nahikoa da eskuan dudana potea, eta noski, modelo. Nagore Lasarte izan dut laguntzailea. Ez da hiru argazkire-

kin egindako muntaia bat, argazki bakarra baizik. Kontua da denbora asko eskatzen duela teknikak, eta zutitzen ari den modeloaren sekuentzia ezberdinak jasotzen dituela. Irudia ikusi duten batzuek interpretazio ezberdinak eman dituzte, baina nik uste **Altxa** izenburuak nahikoa garbi uzten duela zein mezu helarazi nahi duen, eta nori”.



Silvia Ayerra artista

Iruindarra da Basteroko erakusgelan ikusgai dagoen **El burdel de Lola** argazki erakusketaren egilea. Probokazio puntu bat eduki dezaketen argazkiek osatzen dute erakusketa. “Genero rola jorrazten saiatu naiz argazki bildumarekin. Arau sozialen menpe dauden geure gorputzekin jokatu nahi izan dut. Azkene-

an ez naiz saiatu erantzunak ematen, baina bai adierazi nahi izan dut gutako inor ez dela libratzen aurre-iritzietatik. Erakusketara datorren ikusleari, ezer aholkatzekotan, aurre iritzirik gabeko begiekin etor dadila esango nioke”.

Erakusketa datorren martxoaren 18ra arte zabalik izango da, ohiko ordutegian.

MARTXOAREN ZORTZIA ANDOAINEN



Deiadar elkarteko Txitxu Castro, Ainhoa Aiertza eta Myriam Ulanga.



Miren Etxezarreta.



Angela Velo.



Leizaran eskubaloi taldeko Haize Irulegi, Eva Gutierrez eta Toñy Lopez.



Maite Belamendia.



Kontxi de la Fuente.



Bea Amondarain.




Batukada feminista taldeko hainbat kide.



AndoainApp

Herrian ikusten dituzun gorabeheren berri Udalarari zuzenean jakinarazi nahi badizkiozu eta Udalaren albisteak zuzenean jaso nahi badituzu, deskargatu **AndoainApp** berria!



AURKEZPENA

XX. mendeko bertsolaritza biltzen duen liburua

Memoria historikoari eutsi dio, beste behin ere, Xabier Lasa Aiurriko kazetariak Larramendi Bazkunarekin batera argitaratu duen liburua. Memoria, ordea, ikuspegi zabalagoan har-

turik. Ez soilik 36ko Gerrak politikoki eragin zuenaz, baizik eta oraingoan euskalgintza eta kulturgintza esparruetan izan zuen eraginaz. Eta, zehazki, bertsolaritzan.



Xabier Lasa liburua egilea.

Xabier Lasa andoaindarrak “**Joxinixio Etxeberria, Pizkunde zapuztua**” liburu mar-dula idatzi du eta bertan ondorio garbia atera daiteke: 1936ko Gerrak Andoain-en indartsu zegoen bertsolaritzarako tradizioa ere aurretik eraman zuela. Gerra ostean kultur itzalaldi luzea etorri zen, bereziki jendaurreko bertso saioei dagokionez, hainbat hamarkadatan luzatu zena. Iragan galdu hura biltzen eta berreskuratzen hasteko, Lasak Basteron egin zuen aurkezpenean tarte berezia eskaini zion **Roke Ansa** andoaindar kultur-gileari. Duela 15 urte 1936ko argazki bat erakutsi zion, Andoainen antolatuz bertsolari txapelketa batekoa. Hamai-ka bertsolarik hartu zuen parte txapel-



Roke Ansa gogoan izan zuen Xabier Lasak. Hari eskaini dio liburua, eta hari eskaini zizkion hitzak aurreko asteazkenean Basteron egin zuten aurkezpen ekitaldian.

pelketa hartan. Irudi hura eta irudiak gordetzen zuen esanahiak liluratuta, liburua osatzeari ekin zion. Eta horrela, Bazkunaren lankidetzarekin eta Andoaingo Udalaren babesarekin, Andoaingo eta Urnietako auzoetako baserri ezberdinetan XX. mendeko bertsolarien historia osatzen hasi zen.

Ezin alde batera utzi, liburua osatzeko garaian, **Iñaki Alkain** urnietarrak Auspoarekin idatzitako liburua. Hark **Joxinixio Etxeberria** gudariaren ibilerak gertutik ezagutzeko bidea eman zion. Libururako, beraz, ez da hain ezagun duen 36ko Gerrara mugatu. Euskalgintzari eta bertsolaritzari erreparatu dio.

Liburua eskuarteetan, ondorio garbia atera daiteke: 1936ko Gerrak Andoainen indartsu zegoen bertsolaritzarako tradizioa ere aurretik eraman zuela

Gauzak horrela, liburua esku artean hartzen duen irakurleak Andoain euskaldun eta bertsozalea topatuko du, frankismoak aurretik eraman zuena.

Izan bazen, beraz, Andoain euskaldun eta bertsozalea. 1936ko Gerrak hori zapuztu zuen. Eta gerora azken hamarkadatan Andoain herri erdalduna den esamesa zabala bada ere, iraganari erreparatzea bezalakorik ez dago euskarak eta bertsolaritzak paper berezia izan zutela jabetzeko.

Basteron egin zuen aurkezpen ekitaldira ehun lagun inguru hurbildu zen, haietako asko XX. mende hasieran bertsolaritzan murgildutako protagonisten ondorengoak. Lasaren agerraldia entzun ostean, esker oneko txalo zaparrada eskaini zioten. Liburua Aiurri eta Andoaingo liburu-dendatan eskura daiteke.

Udalarekin eta Aldundiarekin lankidetzan



Arantza Aguado Udal teknikaria, aurkezlea.

Ehun lagun inguru hurbildu zen joan zen asteazkeneko aurkezpen ekitaldira. Aurkezle lanak Arantza Aguado euskara



Ainara Rodriguez zinegotzia.

teknikariak egin zituen. Ainara Rodriguez euskara zinegotziak Bazkunaren lana balioan jarri eta Xabier Lasari memo-



Aitor Amutxastegi Larramendi Bazkuneko kidea.

riaren lanketan jarraitzeko gonbitea luzatu zion. Aitor Amutxastegik bere aldetik Bazkunaren 25. urteurrena gogoan



Maribel Vaquero Foru diputatua.

izan zuen eta, azkenik, Maribel Vaquero, Aldundiak memoria berreskuratze-ko duen konpromisoa berretsi zuen.

AURKEZPENA

Urnietako bertsolariak “Joxinixio, pizkunde zapuztua” liburuan



Iñaki Alkain.

Iñaki Alkain

Berrasoeta baserrian jaio zen 1917an, eta 1971an hil. Bertsolari sonatua izan zen, bere aita Fernando bezainbat. “*Gerrateko ibillerak*” izenburua zeramaten hiru liburuki idatzi zituen Auspoa sailean, eta bertan, besteak beste, Joxinixio Etxeberriarekin Bizkaiko frontean edukitako bizipenak kontatu zituen. Alkainek kontatzen zuenez, Xabier Lasaren liburuaren protagonista **Joxinixio Etxeberria** andoaindarrak zelatari gisa jardun zuen Euskal Ejertzitotan; etsaien eremuetara joan eta hango mugimenduen inguruko xehetasunak **Jose Antonio Agirre** lehendakariari helarazten zizkion Alkain izaten zuen ondoren zeregina horietan. Gerra aurretik eta ondoren jendaurreko bertsolari bikaina zela erakutsi zuen; kontu-kontalari gisa ere ez zen atzean geratu, aipatu hiru liburuetan ikus daitekeen moduan.



Migel Arrieta.

Migel Arrieta

Legarralde baserrian jaio zen (Goiburua auzoa) 1931n. Hizketan bezainbat egiten zen bertsoan baserri horretan, aita eta seme-alabak elkarrekin aritzen baitziren. Txapelketetako bertsolaria izan zen Migel. 17 urte zituela tabernatan eta lagun-giroan erraz aritzen zen bertsoan, eta Donostian gazteentzat antolatatu zen txapelketan hartu zuen parte. Baita Urnietan lau urnietarrek jokatu zuten hartan **Juan Batista Urretabizkaia**, **Praxku Urruzola** eta **Juan Joxe** anaiarekin batera. **Joxe Lubarritza**, **Ernani Txiki**, **Le-xoti** eta beste zenbaitekin jardun zuen plazaz plaza, baina bertsoarako trebezia eduki arren inguruan laguntza falta ikusita uztea erabaki zuen horietakoa izan zen. 1962an, Migel Andoainera bizitzera etorri zen, bertakoa zen **Maritxu Etxeberriarekin** ezkondu eta gero. Bertan bizi da geroztik.



Migel Balda.

Migel Balda

Pago-Adarraga baserrian jaio zen 1914an. **Joxepi Leizeagarekin** ezkondu eta Andoaingo Buruntza auzoko Sorotxiki-Buenabista baserrira etorri ziren bizitzera. Lagunarteko bertsolaria izan zen batik bat, eta 60ko hamarkada arte Kaletxiki auzoko taberna eta sagardotegiak bertsoz girotzen zituzten bertsolarietako bat izan zen. Egia esanda, ez ziren gutxi Kaletxiki, Bazkardo, Buruntza edo Leizotz auzoetako bertsolariak edanleku horietan biltzen zirenak, aisialdiarekin orduetan: **Joxe Ormazabal Lubarritza**, **Ramon Olazagirre Ramon Ttikia**, **Antonio** eta **Manuel Elola Ixkurrain**, **Juan Batista Etxeberria Maxartegi**, **Joxe Aldasoro Bentaberri**... Euskal Herrian mentalitate jakin bateko azken belaunaldia ordezkatu zuten, aisialdiaren gozamenen bertsozaletasunarekin estuki lotzen zuena.



Iñaki Otaño.

Iñaki Otaño

Agirieta baserrian (Oztaran bailara) jaio zen 1949an; **Mila Loinezekin** ezkondu eta Sorabilla auzoko San Migel baserrian bizi izan zen, harik eta 2016an hil zen arte. Iñakik etxetik bertatik jaso zuen bertsozaletasuna, aita (Anizeto) eta anaia bat (Nikanor) ere sukaldean zein kalean bertsoan aritzen baitziren. Ahots sendoa zuen, eta bertsoakera tradizionala zuen maite. Andoaingo Ontza elkarteak gazteentzako antolatatu zuen bertsolari txapelketa irabazi zuen 1974an, eta **Amurizak** irabazi zuen 1982ko Euskal Herriko txapelketan finalaren atarian geratu zen. Berak beti aitortu izan zuen lagunarteko bertsolaria zela, jendaurrekoa baino gehiago. Andoaingo lehenbiziko bertso eskolako maisua izan zen; bertan ikasita irten ziren plazara **Joxe Manuel Oizartabal** eta **Jokin Sorozabal**.

‘Sorozabaletik Mendiluzera’, abiapuntua



Aitor Mendiluze eta Jokin Sorozabal bertsolariak aurkezpen ekitaldian izan ziren.

Andoaingo bertsozale batzuren ekimenez, eta Andoaingo Udalaren laguntzarekin, Jokin Sorozabal eta Aitor Mendiluze bertsolariak omendu zituzten 2014ko apirilean. Bertsolaritza historia garaikidean toki nabarmena dute, biek ala biek.

Aurkezpen ekitaldira hurbildu ziren biak, eta adi-adi jarraitu zituzten egilearen azalpenak. Xabier Lasak egindako bilketa lana azpimarratu zuen Jokin Sorozabalek: “Bagenekien, Lasak berak esanda, Andoaingo bertsolaritza historia biltzen ari zela. Harritu egin ninduen, 1930eko hamarkada hartan, Andoain mailan hainbeste bertsolariarekin txapelketa bat antolatu izanak. Ahozko lekukotzekin garai hura gogoan zuenik bazen eta Xabier Lasa hori guztia bil-

tzeko gai izan da, testigantza horiek betiko isildu aurretik”.

Egindako berreskurapen lanari balio handia ematen dio Aitor Mendiluzek: “Ezjakintasun handia zegoen, guri askotan aipatu izan digute lehenagotik bertsolariak ez dela izan. Bada, begira, egon ziren eta niri aspaldian giro eta tradizio bat bazegoela jakiteak ilusioa egin dit. Aurrera begira balio handia ematen diot liburuari, zer landua eta zer ikasia badagoelako. Bide batez, hainbat tokitan Andoain herri erdaldu-na den topiko hori hausteko eta euskarak hainbat belaunalditan izan dituen arazoak isladatzeko lan aproposa da”.

Liburua salgai:

Aiurriko egoitza, Andoainen.
Delgado, Ernaitza, Stop liburu-dendak.



FELIPE IZAGIRRE • URNIETA

Gorrotoaren autobusa

Historia aurrera doa etengabe-ko bidean. Dena da aldakorra, ez dago ezer absoluturik. Eta fenomeno hau maila guztietan eman ohi da, alegia, gizartean, ideologian, bizitzeko modutan, pentsaeran etab... Gaur gizartea gidatzen duen ideologiak aurrerakoia den beste batekin egiten du talka eta talkaz talka beste berri bat sortzen da. Marx pentsalari famatuak horri dialektika deitzen zion: hots, tesia, antitesia eta sintesia. Gure artean askotan esan ohi dugu: gure garaian ez ziren horrelako gauzak entzuten, ez ziren gaurko aurrerapenak ezagutzen. Halaxe da, baina aurrera goazen heinean zahar-zen dena hor geratzen da. Entzuna dut zaharra eta heldua- ren arteko desberdintasuna; pertsona zaharra lehengoan geratutakoari dagokio; heldua, aldiz, gaurkoratzeari. Lehengo ez da bere osotasunean gaitzetsi behar gaurko belau- naldiek dioten bezala; ez da gaurkoa ere lehengo belau- naldiak dioten bezala. Jakin deza- gun sintesia egiten, eta, horrela, gure barne gaztetasuna mantenduko dugu.

Kontua da, sarrera edo tes- tuinguru honekin denok entzu- na izango duzuen autobusa kokatu nahi dudala, autobusa horren atzean edo azpian za- harkitua geratu den ideologia edo pentsaera bat baitago. Au- tobusaren izenburua: "Hazte oir". Azpituak, berriz, " mutilek zakila dute; neskek bulba". Autobusaren helburua da, nolabait, transexual edota sexu genitaliatik harago per- sonak erabaki dezala bere identitatea eta generoa. Nik gorrotoaren autobusa deitu diot, baina beste izen askoz ere bataiatu dute aipatu au- tobusa; hala nola, errespetuaren aurkako autobusa, aniztasuna- ren eta askatasunaren aurka- koa; autobus zaharkitua, ez bere itxuran, baizik eta bere edukietan. Bestalde, esan be- har da autobusa ez dela zeru- tik jaitsia, bai zera!! Sarreran aipatu dudana gaurko ideolo- giaren aurka sortu da; lehen- gora eraman nahi gaituen pen- tsaera gisa.

Izan ere, bada Euskal Her- rian eta badira Estatu mailan ere, haur transexualeen alde diharduten erakundeak. Chry- salis du izena eta hemen Eus- kal Herrian Aingeru Mayor se-

xologoa da bere lehendakaria. Hauek diote: Badira zakila du- ten neskak eta bulba duten mutilak. Horrelaxe da. Era- kunde honek errespetua, per- tsonaren zoriontasuna, moder- nitatea ditu bere balio identi- fikatzaileak. Eta ahaleginak egi- ten ari dira bere familian ho- rrelako haurren bat duten gu- rasoei normaltzat har dezaten eta beren seme-alabei bere identitatea aurkitzen lagun diezaioten.

Itzul nadin autobusera. Au- tobusa martxan jarri duen el- kartea 2001ean sortu zen. Bu- rua: Arzuaga abokatua. Bere jarduera familia eta haurren heziketari lotuta dago, jakina, ikuspegi katoliko eta kontser- badoretik. 2013 gizartearen- tzat erakunde onuragarritzat jo zuen Fernandez Diaz PPko ministro ohiak, eta hori dela eta, fiskalitate arloko kargak kendu zizkion. 2014-2011 ur- teetan Rodrigo Zapatero sozia- listak martxan jarritako zen- bait legeren aurka altxa zen, hala nola, homosexualen alde- ko ezkontza, abortu legea eta abarren aurka. Aurrekari hauek ikusita norberak osa de- zake bere pentsaera. Elizaren zati kontserbadoreena atzetik duela ezin ukatu. Munillak ere ez du kanpaina honen kontra- ko jarrera ondo ikusi; norma- la, bestalde, elizak hain sutsu defendatzen duen familia ere- du bat kolokan jartzen baitu.

Autobusa martxan jarri eta berehala erreakzioak sortu zi- ren. Orain, dirudienez, au- tobusa esaldie galdera ikurra jarri diote. Galdera jarri badio- te ez dago gaizki, jendarte- an zalantzak sor ditzan.

Ondorioak, beraz, asko izan daitezke. Niri asko datozkit burura: XXI. mendean gaude eta ezin gintezke zientziaren aurrerapen guztien kontra jo- an. Bereiztu ditzagun gauzak: gauza bat da jenitalitatea eta bestea identitatea, generoa. Errespetatu ditzagun haurren joerak, lagun diezaiogun be- raien identitatea garatzen eta zoriontasuna aurkitzen. Egin diezaiogun aurre lehengora eraman nahi gaituen ideologia eta pentsaerei. Eta bukatzeko, Pablo Iglesias, Podemoseko buruzagiaren hitzak Hazte Oir ekimeneko sustatzaileei: "Iza- nen dute zakila; izanen dute bulba; baina ez dute ez garu- nik, ez bihotzik".

KIROL ALBISTEAK

5.670 partaide joan zen igandean, Donostiako lilatoian

Aldarrikapen eta ospakizun kutsuko Lilatoia

Milaka emakume protagonista bilakatu ziren Donostiako kale- rik nagusienak hartuta, eta era horretan lasterketak emakumea eta kirola ikusgarri egitea lortu zuen. Partaidetza %46 igo da azken lau urteetan Lilatoian, eta gero eta gehiago dira korri- ka egitera eskualdetik ere ani- matzen direnak. Adin guztieko emakumeak ikus zitezkeen igandean; bizkorrago batzuk eta mantsoago besteak, baina denak iritsi ziren helmugara. Irribarrea ahoan, gainera.



Igone Berazak aurrealdean amaitu zuen lasterketa, 23:53 denbora eginez.



Nerea Alvaríño eta Conchi Palacin.



Begoña Iraola eta Miren Uranga.



Haizea Zabala, Arantxa Agirre, Maria Angeles Etxezarreta eta Rosi Martinez.



Amagoia Mujika.



Oihana Alonso, Raquel Conde eta Maria Isabel Lopez de Arregi.



Nagore Arizaga eta Mariñabel Iribarren ama-alabak.



KIROL ALBISTEAK

Denboraldi hasiera alebin eta infantil mailako txirrindularientzat

Urteko lehen pedalkadak Andoainen bertan



Sari banaketa ekitaldia Kaleberrian bertan joan zen larunbat arratsaldean, Andoaingo Txirrindulari Eskolak antolatutako proban.

Andoaingo Txirrindulari Eskolako kideek denboraldiko lehen pedalkadak herrian bertan eman zituzten, antolatzaileek urtero Kaleberrian egokitzen duten ibilbide itxiari hainbat itzuli eginez. Euria gogotik bota zuenez, errepidea irristakor zegoen eta hori dela eta bihurtu eta ia-ia geratu egin behar izaten zuten.

ANDOAINGO LASTERKETA MARTXOAK 4, LARUNBATA

Alebinak mutilak:

1. Igoin Pikabea (Andoaingo)
2. Xanet Mendizabal (Ampo)
3. Urko Vidal (Limousin)

Alebinak neskek:

1. Arene Perez (Ampo)
2. Irene Dravasa (Limousin)

Infantil mutilak:

1. Dani Fursenko (Andoaingo)
2. Markel Galparsoro (Ampo)
3. Aratz Guridi (Ampo)

Infantil neskek:

1. Laiene Pikabea (Andoaingo)
2. Amaia Astarloa (Limousin)



Dani Fursenko indartsuena izan zen Kaleberriko ibilbide arrakatsuan. Indartsuena izateaz gain, taldekideen laguntza izan zuen.



Igoin Pikabea alebin mailako txirrindularia helmugara iristen.

Herritarrek hautagaiak izendatzeko aukera dute

Kirol merezimendu sariak


Azken urteetan bezalaxe, 2017an ere Andoaingo urteko kirolariak nabarmenduko ditu Allurralde Kirol Patronatuak. Hautaketa prozesuan herriko

kirol elkarteek eta herritarrek parte har dezakete. Hautagaiak herriko kirolaren aldeko lanagatik edo bere kirol ibilbide pertsonalagatik nabarmendu

nahi direnak izan daitezke. Epea martxoaren 31n amaitzen da. Proposamenak aurkezteko:

- allurralde@andoain.eus
- kirola.andoain.eus

Jokin Lizeaga txapeldun, Xuban Ezeiza bosgarren



AIAKO MENDI LASTERKETA

Eguna: 2017.03.05
Ibilbidea: 15 kilometro.
Helmugaratuak: 287.

Sailkapena:

- | | | |
|---|---------|--------------------|
| 1 | 1:07:07 | Jokin Lizeaga. |
| 2 | 1:08:42 | Ruben Ruzafa. |
| 3 | 1:09:46 | Andoni Olazagirre. |
| 4 | 1:10:40 | Chakib Lachgar. |
| 5 | 1:12:36 | Xuban Ezeiza. |

Urnietarrak:

- | | | |
|----|---------|------------------|
| 18 | 1:18:44 | Mikel Legarreta. |
|----|---------|------------------|

Andoaindarrak:

- | | | |
|-----|---------|------------------|
| 70 | 1:27:58 | Ion Rodriguez. |
| 135 | 1:35:55 | Antxon Gonzalez. |
| 272 | 2:01:34 | Iker Etxeberria. |
| 273 | 2:01:34 | Aitor Aramendi. |
| 274 | 2:01:34 | Urko Otaño. |
| 282 | 2:09:36 | Imanol Gorjon. |

Ganbara saski taldea

Asteburuko emaitzak:

A. Zaharra 60-63 Ganbara SenM
Oiarzun 47-46 Ganbara JubM
Ganbara KadM 30-54 Bergara

Asteburuko partidak Allurralden:

16:00 Ganbara SenM-Zast
09:00 ganbara JubM-Take,
Martxoak 12, larunbata.

Erregional mailako futbola

22. JARDUNALDIA. Emaitzak:

Euskalduna 0-0 Hernani

Trintxerpe 3-1 Urnieta

23. JARDUNALDIA. Asteburuan:

Urnieta-Astigarraga

Sanpedrotarra-Euskalduna

SAILKAPENA. 22. jardunaldia:

1. Añorga 51

2. Allerru 51

3. Trintxerpe 46

4. Euskalduna 34

11. Urnieta 25

Senior mailako eskubaloia

SENIOR MUTILAK:

Urnieta 26-29 Ordizia

Egia 33-28 Leizaran

SAILKAPENA. 17. jardunaldia:

1. Ordizia 31

2. Urnieta 24

5. Leizaran 18

DATORRENA, 18. jardunaldia:

Eibar-Urnieta

Leizaran-Elgoibar

Urnieta 26-29 Ordizia

Senior mutilak. Partida galdu zuten

kategoriako talde onenaren aurka,

lidergotzari sendo eusten diona.

Urnietarrek bigarren postuan jarraitzen

dute eta beraien esku jarraitzen du

igoera faserara sailkatzeak.

Partidaren azken zatian etxekoei

ezinezkoa egin zitzaizen aurkariek lor-

tutako 6 goleko aldea berdintzea.

Benjamin mailako igerilariak



"Buruntxiak" igerilari gazteenak Ordizian igerian aritu ziren.

